



## **Gipuzkoako Bazkondeak 100 enpresa baino gehiago elkartu ditu europako azpikontratazio industrialeko topaketan: Meetind**

- *Europako Azpikontratazioko Industria Erosleen V. Topaketa. Bertako azpikontrataziozko industriaren salmentak bultzatzeko helburuarekin.*
- *Hilaren 12an eta 13an , Gipuzkoako Bazkondeak, Europako 4 herrialdeetatik etorritako 25 erosle, bertako azpikontratazio industrialeko 90 enpresekin elkartuko ditu, eskaera eta eskaintza bateratzeko asmoarekin.*
- *250 bilera inguru egingo dira bezero europarren eta azpikontratazio enpresen artean. Enpresetara egingo diren bisitak 40 izango dira.*

**Donostia, 2014ko matxoaren 12an.** MEETIND 2014 azpikontratazioko industriaren topaketaren gunea da. Azpikontratazioak gure lurraldeko industriaren % 27,6 ordezkatzen du. Sektore honek gipuzkoako ekonomian duen garrantzia kontutan izan da, Gipuzkoako Bazkondeak bostgarren urtez jarraian, MEETIND, Europako Azpikontratazioko Industria Erosleen Topaketa antolatu du. Aurtengo topaketak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izango du.

Topaketa honen helburua, gure azpikontratazioko enpresen salmentak bultzatzea da, horniketa iturriak zabaltzeko interesa duten europako erosleak erakarriz.

Topaketa bi egunetan banatuko da. Lehenengo egunean, martxoaren 12an, 100 enpresa baino gehiago, erosleak eta azpikontrataziokoak, Gipuzkoako Bazkondean elkartuko dira. 30 minutu iraungo duten 250 bilera inguru antolatu dira.

Bigarren egunean, martxoaren 13an, erosleek gure lurraldeko 40 enpresa bisitatuko dituzte. Bisita hauen helburua eskaeren kontratazioa sustatzea da, erosle europarrei gure enpresen ahalmenak eta kalitatea ezagutaraziz.

### **Erosleak eta Azpikontratazaileak**

Topaketa honetara etorriko diren 25 erosleak europako bost herrialdeetatik datozte (Alemania, Erresuma Batua, Frantzia eta Suedia). Sei milo ta erdi eurotatik 9.300 eurotara fakturatu dezaketen enpresak dira eta honako sektoreetakoak dira: automobilgintza, eraikuntza, trenbideak, elektrizitatea eta potentzia elektronikoa, energetikoa, haurtzaintzako produktuak, makinaria ezberdinen fabrikatzaileak (packaging, elebazioa, desaladorak, beiraren prozesua, tresnak, nekazaritzako elikagaiak).



Topaketara etortzen den eroslea aldez aurretik onartutako elkarrizketen agenda pertsonalizatu batekin etortzen da, bere fabrikatzeko beharretara egokitzen diren enpresen zerrendarekin..

Azpikontrataziokoei dagokionez, 90 enpresek parte hartuko dute. Gipuzkoatik etorriko dira enpresa gehienak. Horrez gain, bizkaiko, arabako, cantabriako, cataluñako, madrileko, valentziako, galiziako, aragoiko, andaluziako eta asturiasgo enpresak etorriko dira. Enpresa hauen aktibitateak ondorengo hauetan laburbiltzen dira: galdaketa (burdinezkoa eta burdinezkoa ez dena) txiribil-harroketakin edo gabeko transformazioa (burdinola, galdaragintza, mekanizatua, estanzazioa, enbutizio, laser bidezko mozketak, urarekin etb.), elektrizitatea eta elektronika, plastikoa, kautxua eta taldeen fabrikazioa.

### **Abantailak**

Topaketa honi esker erosleek eta azpikontratatzailleek onurak lortzen dituzte. Bi aldeentzako abantailak.

Alde batetik erosleak, bilaketa pertsonalizatu baten onura lortzen du eta berak onartutako enpresekin biltzen da. Bere produktibitatea hobetzen du, egun bakar batean hornitzaileak izan daitezkeen 15 enpresekin elkartzen delako. Eta elkarrizketatutako hainbat enpresen produkzioa bertatik beratara ikusteko aukera duelako.

Azpikontratatzailleak bestalde, bere enpresentzako nazioarteko bezeroak izan daitezkenak identifikatzea lortzen du. Era berean, egun bakar batean, enpresa hauetako erosketa arduradunakin elkarrizketatzeko aukera du eta horrela profesional hauek euren enpresetara erakartzeko aukera dute. Kontutan izan behar da ere, bilerak etorkizunean bezeroak izan daitezkeenekin izango direla, erosleak elkarrizketa hauek aldez aurretik onartzen dituelako.

Erabateko abantailak, bi egunetan, martxoaren 12an eta 13an, Gipuzkoako Bazkundean bilduko diren 100 enpresa baino gehiagorentzat.

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***

Irune Bengoetxea

**[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)**

943 000 310 / 688884347